



ARABA ETA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIEK ADOSTU DUTE EIBAR – GASTEIZ (AP-1) AUTOBIDEA IREKITZEKO EGUTEGIA

Eibar-Gasteiz (AP-1) autopistako lanak amaitzeko bidean daude eta Araba eta Gipuzkoako foru aldundiak ados jarri dira oraindainsi zabaltzeko dauden bi autopista zatiak –Arlaban-Eskoriatza eta Eskoriatza-Arrasate– irekitzeko egutegiaren inguruan.

Araba eta Gipuzkoaren muga hartzen duen Arlaban eta Eskoriatza arteko zatia, hiru kilometroko Isuskitzea tunela duena, apirilaren hasieran jarriko da zerbitzuan, Aste Santuaren inguruan. Horrela, orain dela hilabete batzuk bi erakundeek hartu zuten erabakia beteko da, alegia, 2009ko Aste Santurako Arrasate-Eskoriatza zatiko obrak amaitu gabe egonez gero, Arlaban-Eskoriatza tartea bere aldetik irekitzekoa.

Arlaban-Eskoriatza zatiak 10,8 kilometroko luzera du, eta bere baitan ditu: Isuskitzako tunela (3,3 km) eta Zarimuzkoa (500 m), eta Maringo bidezubia (erdiko pilarean 100 m-ko altuerakoa) eta Zarimutz, Mazmela, Apotzaga eta Uztarretako bidezubiak.

Araba eta Gipuzkoako aldundiek erabaki dute, era berean, Arlaban-Eskoriatza zatia irekitzen denetik AP-1 osoa irekitzen den arte, Arrasate-Eskoriatza ireki arte, alegia, ez dutela kobratuko Arlaban-Eskoriatza tarteko azpiegitura erabiltzeagatik.

Arrasate-Eskoriatza tartea ezin izan da amaitu garaiz, orain aste batzuk Apotzaga aldean izandako lur lerratze batek atzeratu dituelako lanak. Lurjausi hori konpondu beharrak esandakotik hilabete pare bat atzeraraziko du Arrasate-Eskoriatza zatiaren amaiera; beraz, ekainean ireki ahal izango dela espero da.